

FUNTSEZKO SOZIETATEAK- ALIANTZAK



Bazkide eta hornitzaile nagusiak:

→ Gure enpresak, hainbat bazkide eta hornitzaile nagusi izan beharko lituzke proiektua aurrera eramateko:

Planifit teknologikoki aurreratutako diren enpresekin aliatu beharko da, hala nola, **Google** (Google Calendar eta Google Task-en integrazioa), **Microsoft** (Outlook eta Microsoft Teams-ekin integrazioa) edo **Apple** (iOS Calendar eta Reminder-ekin sinkronizazioa) plataformak erabiliz. Hodeiko **zerbitzarien hornitzaileak** izango dira AWS, Google Cloud eta Microsoft. Adimen Artifizialeko eta Datuen Analisisiko **bazkideak** izango dira ChatGPT, IBM Watson eta Datarobot.

Aplikazioen dendak, Apple App Store eta Google Play Store, elkartzea ezinbestekoa izango da aplikazioa **iOS eta Android** erabiltzaileei banatzeko. Eduki-sortzaileekin eta influencer-ekin elkartzea ere garrantzitsua izango da gure produktua mundu osoari ailegatzeko, Youtuber (Luisito Comunica) eta blogariek elkarlanean arituko gara eta tutorialak eta reviews-ak egingo dituzte PlaniFit ezagutarazteko.

Marketing digitalari dagokionez, erabiltzaile potentzial guztien **arreta** erakartzeko aliantzak sustatuko ditugu Google Ads, Instagram, Facebook, X eta TikTok plataformekin. Era berean, **komunikabide digitalekiko** aliantzak egingo ditugu TechCrunch, Wired eta Fast Company, teknologia eta produktibitatea ardatz dituzten enpresekin.

Hezkuntza-erakundeekiko aliantza bat eginez, ikasleei eta irakasleei doako **premium** edo probako bertsioak eskaintzeko **lizentziak** eskainiko diegu.

Berrikuntza teknologikoen zentruak izango dira aliatuak, garapen aurrerakoiak egiteko, eta gaur egun "IA"-k oso erabilgarriak direlako.

Zibersegurtasun enpresekin aliatzea garrantzitsua izango da erabiltzaileen informazioaren **pribatutasuna** bermatzeko eta **datu pertsonalak** babesteko. Halaber, Betetze eta Erregulazio Aholkulariak, adibidez, GDPR (Europar), bezalako **araudiak** betetzeko aliantzak egitea ezinbestekoa izango da plataforma legearen ikuspegitik behar bezala funtzionatzeko.

